# ARRAKASTAREN UHINEAN

Ermuko talde hau arrakasta handiz irten da kalera. 1995eko azaro-abenduan sortua, 10 kontzertu inguru eman dituzte dagoeneko. Maketa, sei abestiz osatua eta ekainean Berrizko Lorentxo Records-en grabatu berria, uztailaren erdialdean kaleratuko da, hau da, jada!, eta beraz, laster izango duzu herriko tabernetan erosteko aukera.

Taldekideak Esther (ahotsa), Iker (kitarra), Markos (baxua) eta Juanmi (bateria) dira. Horietako batzuek Julio Kagetan hartutako esperientziaz jo- tzen dute, baina talde berriak ez du lehengoaren antzik batere.



***Dantzut-en oinarria Julio Kageta izan daiteke, baina talde oso ezberdinak dira.***

Kritikak dioenez, soinu eta estilo berezia du talde honek, eta aipatzekoa da Bilboko Pop-Rock lehiaketa entzutetsuan ere sailkatua suertatu zela. Abestietan boterearekin harremanei buruzko gaiak aztertzen dituzte, tolerantzia, militarismoa, emakumeen zapalkuntza...

Entzuteko gogoz bazaude, hurrengo kontzertua abuztuaren 7an, Gasteizko jaietan, aukera paregabea izango duzu. Handik bazabiltza ez ezazu baztertu.

**TESTUA: MONTSE GONZALEZ "AXULAR"**

**ARGAZKIA: SANTOS VEGA**



SIRIMIRI TABERNA
*Pintxo eta bokatak*
*Erdiko kale, 11*

*opariak*
*arropa informala*
ELAINE
*Karabixa 1. zbk. behea*

OPTICA
J. CASADO
Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antijuak
Eguzkirako Antijuak
Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57
ERMUA

arral s.l. *esklusibak*
Luis Cañas • La Española azeituna
La Verja zumo eta Iturri kontserben BANATZAILEA
Goitondo Goikoa poligonoa - B-3 Pabiloia
Telefonoa: 17 60 75 • Mallabia

ZARAUZTARRA JATETXEA
LEHEN, ORAIN ETA BETI
- Zapua
- Txuletak
- Bildotsa burduntzian
- Laranja flana

